

Bidaiarien sarrerak %4 gehitu ziren 2007ko ekainean

Ekaineko gualdietan ere %4ko hazkundera izan da

Eustaten datuen arabera, 2007ko ekainean 189.208 bidaiarik hartu dute ostatu Euskal Autonomia Erkidegoko hoteletan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino ia 8.000 gehiagok eta, horrenbestez, %4ko hazkundera izan da. Bidaiarien sarrerak handitu egin ziren Araban (%10) eta Bizkaian (%8); Gipuzkoan %1eko jaitsiera izan da, aurreko urteko hilabete beraren aldean.

Estatutik etorritako bidaiarien sarreretan %2ko hazkundera dago 2006ko ekainaren aldean, eta atzeritik etorritakoen sarreretan %11koa izan da. Estatutik etorritakoek bilakaera positiboa izan dute Araban (%3) eta Bizkaian (%4) eta negatiboa Gipuzkoan (%2). Hiru lurralde historikoetan gehitu ziren bidaiari atzeritarren sarrerak: %30 Araban, %15 Bizkaian, eta %1 Gipuzkoan.

Estatutik etorritako bidaiarien kasuan, besteak beste EAetik beretik, Asturiastik, Kanarietatik, Kantabriatik, eta Gaztela-Manchatik etorritakoen kopurua gehitu egin da. Gutxitu egin ziren, batez ere, Madrilatik eta Andaluziatik etorritakoak. Atzeritarren kasuan, bidaiari gehiago etorri da Alemaniatik, Frantziatik, Irlandatik eta Portugaldik, besteren artean; aitzitik, Italiatik, Greziatik eta Japoniatik, batez ere, etorritakoen kopurua, gutxitu egin da.

Gaualdiak, 2007ko ekainean, 347.758 izan ziren, aurreko urteko ekainean baino %4 gehiago, hots, 13.000 gaualdi gehiago. Gaualdiek urte arteko bilakaera positiboa izan zuten Araban eta Bizkaian, %10 bietan; Gipuzkoan %4ko jaitsiera izan zen.

Batez besteko egonaldiaren iraupenean ehuneko bateko jaitsiera izan da: aurreko urteko ekainean batez besteko hori 1,85 egunekoa izan zen eta aurtengoan 1,84 egunekoa, Euskal AErako bere osotasunean. Araban ez dago aldaketarik (%0); %2 hazi da Bizkaian eta %3 murriztu Gipuzkoan.

Plazakako betetze-maila %3 jaitsi eta iazko ekaineko %50,34tik aurtengo ekaineko %48,75era pasa da. Gelakako betetze-maila ere %3an jaitsi da; bi betetze-mailek negatiboki eragin diote Gipuzkoari, Arabak eta Bizkaia intentsitate ezberdineko hobekuntzak izan dituztelarik.

Nekazalturismoa: Gehitu egin ziren bidaiarien sarrerak (%7) eta gaualdiak (%8)

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan, 9.806 bidaiari-sarrera zenbatu ziren ekainean, aurreko urteko hil berean baino %7 gehiago: %10ean ugaritu ziren Araban eta %21ean Bizkaian, baina %3an jaitsi ziren Gipuzkoan. Estatutik etorritako bisitariak %3an handitu ziren Euskal AEn: Araban %12 hazi dira, %16 Bizkaian eta Gipuzkoan %6 murriztu. Euskal Autonomia Erkidegoan %40 atzeritar gehiago izan da: Jaitsi egin da Araban (%-17), baina igo Bizkaian (%65) eta Gipuzkoan (%37).

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan egindako gaualdiak 23.486 izan ziren ekainean, aurreko urteko hil berean baino %8 gehiago. Urte arteko hazkunde-tasak positiboak izan ziren lurralde guztietan: Araban (18%), Bizkaian (15%) eta Gipuzkoan (2%).

Bidaiariko batez besteko egonaldia handitu egin zen Euskal AE osoan, 2006ko ekainaren aldean: duela urtebete 2,36 egunekoa izan zen; eta, azken ekain honetan, 2,40koa.

Plazen betetze-maila %5 jaitsi da Euskal AE osoan, Gipuzkoaren eragin negatiboagatik. Gelakako betetze-maila %3an jaitsi da, Gipuzkoan izandako jaitsieragatik.

1. taula: Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	06 2007	%	06 2006	%	Δ %	06 2007	%	06 2006	%	Δ %	06 2007	%	06 2006	%	Δ %	06 2007	%	06 2006	%	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	347.758	100	334.680	100	4	47.396	100	43.204	100	10	160.447	100	145.770	100	10	139.915	100	145.706	100	-4
Estatukoak	226.239	65	224.689	67	1	34.426	73	33.427	77	3	101.169	63	94.999	65	6	90.644	65	96.263	66	-6
Atzerrikoak	121.519	35	109.991	33	10	12.970	27	9.777	23	33	59.278	37	50.771	35	17	49.271	35	49.443	34	0
Hiriburua	211.114	61	204.017	61	3	33.418	71	31.507	73	6	102.267	64	93.796	64	9	75.429	54	78.714	54	-4
Litoral	44.220	13	45.425	14	-3	-	-	-	-	-	15.219	9	16.544	11	-8	29.001	21	28.881	20	0
Barnealdea	92.424	27	85.238	25	8	13.978	29	11.697	27	20	42.961	27	35.430	24	21	35.485	25	38.111	26	-7
BIDAIA-RIEN SARRERAK	189.208	100	181.082	100	4	28.925	100	26.411	100	10	88.034	100	81.572	100	8	72.249	100	73.099	100	-1
Estatukoak	126.760	67	124.800	69	2	21.081	73	20.385	77	3	58.154	66	55.680	68	4	47.525	66	48.735	67	-2
Atzerrikoak	62.448	33	56.282	31	11	7.844	27	6.026	23	30	29.880	34	25.892	32	15	24.724	34	24.364	33	1
Hiriburua	114.633	61	108.912	60	5	19.647	68	17.907	68	10	55.916	64	51.507	63	9	39.070	54	39.498	54	-1
Litoral	21.182	11	22.732	13	-7	-	-	-	-	-	8.227	9	9.355	11	-12	12.955	18	13.377	18	-3
Barnealdea	53.393	28	49.438	27	8	9.278	32	8.504	32	9	23.891	27	20.710	25	15	20.224	28	20.224	28	0
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,84		1,85		-1	1,64		1,64		0	1,82		1,79		2	1,94		1,99		-3
BETETZE-MAILA PLAZAKA	48,75		50,34		-3	46,02		43,10		7	46,91		45,98		2	52,16		58,85		-11
Hiriburua	55,41		54,64		1	48,79		46,16		6	54,83		51,02		7	59,86		64,88		-8
Litoral	49,13		52,74		-7	-		-		-	40,52		42,88		-6	55,30		60,74		-9
Barnealdea	38,14		41,52		-8	40,52		36,58		11	36,41		37,46		-3	39,51		48,41		-18
BETETZE-MAILA GELAKA	60,73		62,48		-3	57,77		54,25		6	59,15		58,73		1	64,11		71,35		-10
Hiriburua	69,53		68,68		1	61,90		59,89		3	69,89		65,30		7	73,70		80,12		-8
Litoral	59,59		61,95		-4	-		-		-	50,27		50,28		0	66,01		71,14		-7
Barnealdea	47,50		50,96		-7	47,32		40,85		16	45,38		48,37		-6	50,63		58,32		-13
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	23.486	100	21.744	100	8	3.330	100	2.817	100	18	7.676	100	6.674	100	15	12.480	100	12.253	100	2
Estatukoak	18.857	80	18.691	86	1	2.914	88	2.421	86	20	5.842	76	5.647	85	3	10.101	81	10.623	87	-5
Atzerrikoak	4.629	20	3.053	14	52	416	12	396	14	5	1.834	24	1.027	15	79	2.379	19	1.630	13	46
BIDAIA-RIEN SARRERAK	9.806	100	9.207	100	7	1.456	100	1.325	100	10	3.464	100	2.857	100	21	4.886	100	5.025	100	-3
Estatukoak	8.692	89	8.411	91	3	1.369	94	1.220	92	12	2.983	86	2.565	90	16	4.340	89	4.626	92	-6
Atzerrikoak	1.114	11	796	9	40	87	6	105	8	-17	481	14	292	10	65	546	11	399	8	37
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,40		2,36		2	2,29		2,13		8	2,22		2,34		-5	2,55		2,44		5
BETETZE-MAILA PLAZAKA	23,33		24,60		-5	18,41		17,42		6	22,82		22,63		1	25,51		28,68		-11
BETETZE-MAILA GELAKA	27,93		28,85		-3	21,75		20,36		7	27,31		26,22		4	30,81		33,95		-9

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34 -945 75 00 Faxa: +34 -945 75 01 e-mail: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp